

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Eguaztena / 2002ko uztailaren 24a / 595. zenbakia

Nazioarteko folklore dantzak ikusgai

Monterron parkean, Filipinetako eta
Bulgariako dantza taldeen emanaldia



ORAIN ETA HEMEN: J.M. ASTIGARRAGARI ELKARRIZKETA/6 • KIROLA: ARRASATEARRAK GASTEIZ CUP-EN/11

AZALA: ALEX AZKARATE

Edertasunaren Gida

Abuztuan zabalik!

A
U
SART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Canizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

SUSi
ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

Jose Antonio
GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lore



Olarte, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

aitor

Gizonezkoen ile apaindegia

Otalora, 14 • 20500 ARRASATE



Tel.:
943 79 01 39
615 78 19 63

Gida honetan azaltzea nahi baduzu, deitu ezazu 943 71 23 91 telefono zenbakira.

KALEINKESTA/ Ze ez zeunke eruenngo oporretan?



RAQUEL PÉREZ
Ikaslie



BEGO ERRASTI
Langillie



ESTELA PÉREZ
Langillie



MIGUEL ANGEL ALONSO
Langillie



JOSE ANTONIO PASTOR
Erretiratue



IÑIGO ERAUSKIN
Langillie

Liburuek, eta boligrafuek be ez. Urtien ziherrak nahikue ikasi dot, eta abuztuen, behintzet, ez dot libururik ikusterik gure. Hala eta be, testak egin biherko dittut oporretan.

Ez dakit. Lanik, behintzet, ez neuke eruenngo. Poltsikoko telefonue ez dot askorik ibiltten, eta oporretan ez neuke eruenngo. Eruenngo nittukien gauzek errexago esango nittuke.

Lan kontuek. Pelukerixa baten egiten dot lan, eta artazixek, esate baterako, ikustie be ez dittut gure. Neuk be ulie motz motzu dot, udan lehenago orrazketako.

Liburuek. Lan kontuek ez dust ardura; frigorifikuen sailien egiten dot lan, eta frigorifikorik ez dot eruenngo. Despertadorerik be ez dot gure, deskantsetan noie eta.

Erraminttek. Oporretan banoie, horreik traban daguz. Orokorrien brikolajiekin zerikusixe daukon ezer be ez nauke eruenngo. Idazmakiñarik be ez neuke eruenngo.

Oporretan, ahal dala, ez neuke lanik egingo, baiñe tokau ezkeror, ez neuke ordu estrarik egingo. Erregimenik be ez neuke egingo. Nahiz eta erregimenik ez egin, ez neuke askorik jango.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXALOAK APARKALEKU GEHIAGO Joan den aspaldian, San Andres auzoan konponketa lan ugari egiten dabiltza, eta bizilagunak kokoteraino daude. Hala ere, hobekuntzak agerian geratzen ari dira, eta beste batzuk bidean doaz. Adibide gisa, espaloian margotu dituzten aparkaleku zeinuak. Batzuen ustez, narras samarrak dira, baina azken baten, aparkalekuak dira, eta hori, gaur egun, ez da gutxi.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

KIROLA / 10

KULTURA / 14

Zabaletako lanak

Zabaletako zubiko lanak aurrera doaz. Abuzturako zubiaren lehenengo zatia bukatuko dute.

Wushu-an, 18 domina

Euskal Herriko Selektzioak 18 domina eskuratu ditu asteburuan izandako Europako Txapelketan.

Film laburrak Monterronen

Uztailaren 30ean, film laburrak izango dira ikusgai Monterronen. AGAKOkoek antolatu dute.

ASTEKODATUA

1.300

BISITARI ARRASATEKO INDUSTRIA ERAKUSKETAN

Dagoeneko 1.300 bisitari baino gehiago gerturatu dira, lehen hilabeteetan, Arrasateko Industria Erakusketara. Bisitari gehienak arrasatearrak izan dira, baina kanpotarrak ere izan dira.

BESTEKEESANA

“

Altxamendu faxistak zauri handiak eragin zizkion Arrasateko herriari. Gerra

zibilean eta 1934ko urriko iraultzan, Arrasaten bizi ziren 8.000 pertsona ingurutik 200 gerra ekintzetan edo fusilatutik hil ziren. Horietatik 128 pertsonak leial jokatu zuten Errepublikaren alde. (...) Hiru emakume Arrasaten fusilatu zituzten, militante sozialista batzuen ama, emaztea eta arreba izateagatik. (...) EAJko nazionalistak, ELAkoak eta Eusko Gaztedikoak: 52 pertsona. Horietatik 28 Arrasaten fusilatu zituzten (haien artean, hiru apaiz eta Emakume Abertzale Batzako emakume bat) (...) Afiliazio politiko ezagun barik 34 pertsona hil ziren. (...) Ez da harrizkoa frankismoaren oinordeko politikoei haien bide antidemokratikotik jotzea.”
JUAN RAMON GARAI
‘Euskaldunon Egunkaria’/02-07-18

HERRITARRENBERBAK/ Ander Elortondo



Mairuak, espainolak eta euskaldunak

711 urtean Roderik (Don Rodrigo generalisimoa-ren liburuetan) Iruña aldean zebilen borrokan. Masben Nusayr (Musa) jaunak bere konfiantzako gizona, Tarik, bidali zuen erreinu bisigodoa konkistatzera. Bisigodoen (Espainolen oinarrri, generalisimoa-ren eta kalitate legearen liburuetan) arteko borroka medio, arabiarren jabe egin ziren. Behar bada honi esker, garai hartako euskaldunak, bisigodoen etsai amorratuak, Nafarroako erreinua osatzeko lehen urratsak eman zituzten.

1975eko apirilean Juan Carlos I Espainiako printzeak Aiunen Saharak berak erabakiko zuela bere etorkizuna agindu zuen. Uztailean Hassan IIak Martxa orlegia bidali zuen hegoaldeko herrialdea konkistatzera. Hiltzeaz zegoen faxista eta bere erregimena, berriz ere etxeko kontuak konpondu gabe zituzten espainolek. Marokok Sahara bereganatu zuen,

azaroan Espainia, Maroko eta Mauritaniaren arteko hitzarmenaz. Espainiar hitza printze harena! Euskaldunek estatutu itzaropentsua lortu zuten ur nahasi haietan.

2002an, aurreko estatutuaren porrota eta Gibraltar auzia pil-pilean daudenean, Marokok

orlegiz jantzitako sei Laila izeneko irlara bidali ditu. Espainiak aurrekoan zazpi mende behar izan zituen errekonkistarako, oraingoan goiz batekin nahiko.

Ridikulu internazionala. Estatu kolonialista, diplomaziarik gabekoa,

OTANek lagun duen estatu arabiar bakarrenetarikoari ‘erasoa’, Europar Batasunaren hegoaldeko mugan arazoak sortu, Frantziaren aliatu, protektoratu ohia, den auzotarrarekin. Guzti hau, EEBBak agindurik biharamunean alde egiteko. Inteligentzia!

Berriz ere, arabiar eta Espainolen arteko liskarretik ezer ateratzerik izango dugu euskaldunok? Autodeterminazioa?

“Saharak berak erabakiko zuela bere etorkizuna agindu zuen. Espainiar hitza printze harena”

Arrasate
PRESS

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martínez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUAZTENA, 24**
Irizar. Erguin, 11. 943 79 12 39
- EGUENA, 25**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- EGUBAKOITZA, 26**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09
- ZAPATUA, 27**
Azkoaga. Iturriotz. 943 79 79 99
- DOMEKA, 28**
Irizar. Erguin, 11. 943 79 12 39
- ASTELEHENA, 29**
Amezua. Santa Marina 32. 943 79 09 74
- MARTITZENA, 30**
Ruiz. Maala 31. 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEKON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (elebiduna) | Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 (gaztelaniaz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Domeka
10:00 San Isidron (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz) |
| Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

FERRERIAS KALEKO JAIK
Egubakoitzean, Ferrerias kaleko jaiak ospatuko dituzte: 17:00etan, umeen eta gaztetxoek txanda izango da; haur jolasak eta txokolate-jana izango dituzte; 19:00etan, Ikurrina jasoko dute, txistulariekin kalejira egingo dute eta herri txikiteoa hasiko da; ordu berean, San Juan Bautista parrokiaren, kaleko hildakoen aldeko meza izango da; 21:00etan, herri afaria egingo dute eta herriko musika talde batek emanaldia egingo du; bukatzeko, 00:00etan, zaku lasterketa eta helduendako jolasak izango dira.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Bihar, eguena, *Amelie* filma emango dute Monterronen, 22:30ean. Sarrera doan izango da.

NAZIOARTEKO DANTZAK
Uztailaren 29an, astelehenean, nazioarteko folklore dantzak izango dira Monterronen, 22:30ean. Sei euroren truke (Gazte Txartelarekin, 5 euro), Filipinetako Karangahan eta Bulgariako Naiden Kirov taldeak arituko dira.

FILM LABURRAK
Uztailaren 30ean, martitzenean, film laburren emanaldia Monterronen, 22:30ean.

AEDrenAGENDA

AEDKO IDAZKARI BERRIA
Irailean jakingo dugu zein izango den AEDko idazkaria. Izan ere, Arrasate Euskaldun Dezagun elkartearen baitan lanpostuen birmoldaketak egiten dabiltza.

ZAHARBERRIREN DEIA
Irailetik aurrera, Zaharberrikoek izenematea zabalduko dute.

URBANOENORDUTEGIA


Gorostizatik Eroskira
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerieka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Gurea zinema izan zena botatzea erabaki zuten

Auzotarrek, Gurea eraikinaren egoera eskasagatik, salaketa jarri zuten. Hirigintza batzordeak eraikinaren barne egitura txarto zegoela eta osasun baldintza txarrak zituela erabaki zuen. Horrenbestez, hamar milioi pezetan ordainduta, eraikina abuztuaren botatzea erabaki zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Infarnuko txerrena"

Deabrua.
Txerren soilik ere bai
-Infarnuko txerrena baiño okerraua da gure mutiko ori.
-Infarnuko txerrena baiño beltzaia.



HAUGIROA!

MINIMOA Eguena, 18	10 °C
MAXIMOA Egubakoitza, 19	36 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,2 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 17	27 °C	12 °C	- l/m²
Eguena, 18	33 °C	10 °C	- l/m²
Egubakoitza, 19	36 °C	14 °C	- l/m²
Zapatua, 20	34 °C	13 °C	0,2 l/m²
Domeka, 21	28 °C	18 °C	- l/m²

Beragarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Irailean arte, Arrasate Irratia zuen DJ partikularra izango da!!!

Arrasate Irratiko langileok ere, zuetako askok moduan, oporrrak hartuko ditugu. Irailaren 2a arte ez dugu zuzeneko saiorik egingo. Horren ordez, FMko 107.7an; uneoro, 24 orduz, musika izango duzue.

DJ PARTIKULARRA
Arrasate Irratiko langileok zuondako, entzuleondako, musika aukeratzeko ibili gara eta espero dugu eskaintza zuen guztion gustukoa izatea. Musi-

ka estiloen eskaintza zabala izango da. Hortaz, oporretan herrian gelditzen zaretenok Arrasate Irratian zuen DJ partikularra izango duzue.

IRAILEAN, ZUZENOKO SAIOAK
Esan bezala, irailaren 2a arte ez dugu zuzeneko saiorik izango. Irailean, ordea, gogor bueltatuko gara, betiko martxan. Dena dela, irailaren, udako programazioarekin jarraituko dugu. Astelehenetik egubakoi-

tzera, 09:00etan, *Egunon* albistei eta *magazina* entzungai izango duzue. 10:30ean, berriz, *Lentejazo izozkia*. Urritik aurrera, bestalde, neguko saioak hasiko dira.

KOLABORATZAILEI DEIALDIA
Urritik aurrera, iluntzeetan, kolaboratzaileen hainbat tarte estreinatuko ditugu, baina oraindik proposamenak egiteko aukera dago. Irailetik aurrera deitu 943 71 17 31 telefonora.

ASTEABIHITZETAN

Maalako jaietan, umeak protagonista

Domekan eta astelehenean (hilak 21 eta 22), Maalako jaiak ospatu zituzten. Domekan meza izan zen, eta horren ondoren, erretiratuek lurcha izan zuten Plus Ultra tabernan.

Astelehenean, berriz, gaztetxoek izan ziren protagonistak. Arratsaldeko bostetatik aurrera, gazteendako jolasak izan ziren, eta zaku lasterketetan, arineketan egiten eta itsulapikoak apurtzen daukaten trebezia erakusteko aukera izan zuten gaztetxo askok. Arratsaldeko zazpitan, trikitixa izan zen, eta gauean, Maalako bizilagunek afaria egin zuten, nahiz eta eguraldiak ez zien askorik lagundu.

Labrit eta Markeliñe Arrasaten

Egubakoitzean (hilak 19), Markeliñe antzerki taldeak emanaldia egin zuen erdiko plazan. DSO antzezlanarekin aho zabalik gertatu ziren erdiko plazara hurreratu zirenak, antzezlan ikusgarria izan zen-eta. Argi eta soinu efektuak izan ziren nagusi, eta, besteak beste, lehengo kontu zaharrak eguneratu egin zituzten antzezlanean.

Zapatuan (hilak 20), berriz, Ferrerriasko jaien aurrerapen moduan, Labrit musikaria izan zen ikusgai. Kontzertuan ez zen jende askorik egon, baina egon zirenek azken diskoko abestiekin gozatzeko aukera izan zuten.

Osoko bilkuran, dena onartuta

Egubakoitzean (hilak 19) egin zuen Udalbatzarrak opor aurreko azkeneko osoko bilkura. Hamaika gai zituen zerrendan eta denak onartu zituzten. Horien artean, Arrasaten dauden berdeguneak eta antzerakoak zaintzeko lanak adjudikatzea onartu zuten; bestalde, lanpostuak sortzeagatik enpresei laguntzeko programaren araudiari zenbait zuzenketa egin zioten eta, bukatzeko, aurtengo aurrekontuan kreditu aldaketa bi egitea ere onartu zuten.



Muren eta Diputazioaren arteko hitzarmena

Mondragón Unibertsitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hitzarmena sinatu zuten astelehenean. Hitzarmen horren arabera, Foru Aldundiak bi milioi euro baino gehiago emango dizkio Unibertsitateari Plan Estrategikoan zehazten diren inbertsioak finantzatzeko.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Herritarren parte hartzea!

Eguraldiak askorik laguntzen ez badu ere, uda garaia heldu da. Baina oporrak ez dira bakarrik atseden hartzeko. Galdeieziaiezu, bestela, oporretan kanpora joan barik uda osoa jairik jai igarotzen dutenei. Oporrak jaien sinonimo ere badira, ez dago hori ukatzetik. Eta azkenaldian, jaiak ez dira lehen zirena. Ez nabil eguraldiaz berba egiten, ezta

zahartzaroaz ere. Hilabete hasieran ospatu dituzten sanferminez ari naiz. Ondo baino hobeto jakingo duzue Iruñeko alkateak, Yolanda Barcina delakoak, txosnak jartzea oztopatu zuela, eta hori lortzeaz oso harro dagoela. Horrez gain, Gasteizko Blancas jaiak gertu ditugu, eta han ere Su Ta Gar taldearen emanaldia bertan behera utzi dute, pisuzko

arrazoirik eman barik. Are gehiago, Gasteizko Udalean PPK proposatu du herriko elkarteek dirulaguntzak jasotzeko ETArén jarduera gaitzestea derrigorrezkoa izatea. Laster, botoa nori eman behar zaion ere dertingortu gura izango dute, jaietan herritarren parte hartzea ezabatzen duten moduan.

Funtsean, herriak eurak eta jaiak herritarrek eta herriko taldeek egiten dituzte, eta ez beste inork.

ASTEKOIRUDIA



JULEN IRIONDO

EUROPAKO WUSHU KUNG FU TXAPELKETA ARRASATEN IKUSGAI

Aurreko asteburuan, Wushu Kung Fuaz gozatzeko aukera izan genuen herrian; izan ere, Europako Wushu Kung Fu Txapelketa jokatu zen Arrasateko pilotalekuan, Uarkapen. Europako eta munduko hainbat selekzio izan dira lehiatzen, eta Euskal Herriko Selektzioa ere txapelketan izan da, eta sekulako mai-

la erakutsi du. Euskaldunak bigarrenak izan dira, 18 domina eskuratuta. Onenak italiarrak izan dira, 22 domina eskuratu dituzte-eta. Txapelketa benetan ikusgarria izan da, eta borroken ondoren izandako erakustaldiak ere ez dira gutxiagorako izan. Txapelketa biribila, horrenbestez. /X.U.



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Aretz

Taberna

Markole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETAK

ELKARRIZKETA

JOSE MARÍA ASTIGARRAGA/PARROKOA

“Herriarendako aldaketa ona izan daiteke, abade berriak ideia berriak ekarriko dituelako”

IKER BARANDIARAN

Jose Maria Astigarraga parrokoak hamazortzi urte egin ditu herrian. Irailetik aurrera, ordea, Apezpikutzaren aginduz, Azkoitira joko du. Hemen bizi izandakoak kontatzeko eskatu diogu eta gustura izan da gurekin berbetan.

Dagoeneko ia arrasatear bilakatu zara, baina aurretik beste herri batzuetan ibilia zara, ezta?


Bai, hala da. 1938an jaio nintzen, Elgoibarren, San Migel auzoko *Sagarraga* baserrian. 14 urterekin eskola bukatu eta bulego baten lanean hasi nintzen. Berehala konturatu nintzen ez nuela gustuko eta, probatzearen, seminario batera jo nuen. Hamabi urte egin nituen ikasten, Saturrararen eta Donostian. Horren ondoren, Nuarbeko parroko izan nintzen bi urte eta erdiz. Nuarbe herriarekin eta hango jendearekin maitemindu egin nintzen. Gero, Erreterian hamazortzi urte egin nituen, parroko laguntzaile, Arrasatera etorri nintzen arte. Erreterian, mezak ematen baino gehiago, irakaskuntzan eta gazteen artean lanean ibili nintzen. Egia esanda, irakaskuntzan eta gazteekin lan egitea gustukoago dut. Izan ere, urte askoan Erreterian ikastolako batzurrean ardurak izan nituen.

Erreterian nengoela, sendi bateko umezurtzen tutore legal egin nintzen, laguntzaile bat kontratatu nuen eta, zelanbait esanda, familia bat sortu nuen. Artean, Erreteriatik nire kasa Nafarroako Unibertsitateko Filosofia eta Letretako lizentziatura eskuratu nuen.

Zein izan zen Arrasatera heltzean izan zenuen aurreneko impresioa? Zerbaitek harritu zintuen?

Parrokiari lehengo harrera ofiziala San Juan bezperan egin nion. Orduan, lehenengo aldiz zuzendu nuen salbea. Oso harri-garria eta hunkigarria izan zen: halako koroa, hainbeste jende... oso impresio ona eta aberatsa izan zen. Bestalde, parrokia bera, katekesiko lokalak eta abadetxea oso egoera eskasean aurkitu nituen, guztiz zaharkituta. Parrokiako ekonomia ez zegoen ondo. Bestela, parrokiako lantaldea oso ona zen, eta da: sakristau eta laguntzaile oso finak, katekista oso langileak... Eliza jendea ere oso jatorra da eta oso ondo hartu ninduten.

Bestalde, parrokia inguruan gazte mugimendurik ez zegoela ikusteak izugarriko tristura



IKER BARANDIARAN

eman zidan. Nik, ordura arte, gazteekin lan egiten nuen eta arlo hori indartzeko beharra zegoen.

Behin Arrasate ezagutu ondoren, zein helburu edo lehen tasun nagusi ezarri zenizkion zeure buruari?

Lehenik eta behin, parrokiako gazte mugimendua indartzeko ahaleginetan hasi ginen. Horretarako, katekesiari eta hura gaurkotzeari lehen tasuna eman genion. Horri esker, lortu genuen gazte mugimendua eratzea. Helduen taldea ere zabaldu gura izan genuen: ikastaro irekiak eta berbaldiak antolatzeari ekin genion. Horrez gain, eliza zaharberritu beharra zegoen; horretarako, herritarren artean pentsaera ekonomikoa ezartzen saiatu ginen.

Lehen aipatu dut katekesia gaurkotzeko ahalegina egin genuela, eta, orokorrean, elizako pentsamoldeak ere eguneratzen saiatu gara, tradizioetik haratago jotzeko. Horrez gain, betidanik garrantzi handia eman diot nire independentzia gordetzeari, jendearen eta presio guztien aurrean. Etsaiak ere egin ditut horregatik, baina funtsezkoa deritzot independente izateari.

“Parrokia inguruan gazte talderik ez zegoela ikusteak izugarriko tristura eman zidan”

“Eliza zaharberritu beharra zegoen, eta herritarrek ekimen hori bultzatzea lortu genuen”

“Herrian sinismena tabua da eta eliza, erakunde maitatua baino gehiago, kritikatu da”

Eta jarritako helburuetatik, zeintzuk ez dira bete?

Material aldetik helburu guztiak bete dira, eta oparo. Abadetxea eta katekesiko lokalak berri-tuta, San Juan Bautista parrokiaren seihun miloi pezeta inguru gastatu ziren, parrokiako ekonomia ondo dago... Bestalde, elkarrekin oso ondo moldatu garen lantaldea sortu dugu eta herrian teologia ere asko berri dugu, baina beste esparru batzuetan oraindik egiteko lan asko dago.

Arrasate herri gaitza da. Hemen fede ezkutua dago, isila... Hau da, kalean sinismena tabua da, eta eliza, erakunde bezala, maitatua baino gehiago, kritikatuago da. Gainera, eliza inguruan ez dabilzan askok parrokiako *Eroski erlijioso* bat dela uste dute, ordaintzearen truke zerbitzuak ematen dituen. Eta ez da horrela. Nik ez diot inori bereizketarik egin. Denok elizaren partaide eta arduradun izan behar gara, horregatik, parte hartzea bultzatu dugu.

Bestalde, oso bitxia da herritar mordo bat bakarrik hileta-elizkizunetara joatea. Gainera, otoitz egiten dute, baina uste dute horie-

tara joanda egin beharrekoa bete dutela.

Zer da Arrasatetik gustu-koen duzuna eta gutxien atsegin duzuna?

Gure lantaldean eta orokorrean herrian ere zeharo integratuta sentitu naiz. Arrasate oso muturrekoa da: herritarrek guztiz onartzen zaituzte edo betiko bizkarra ematen dizute. Beste leku batzuetan bezalaxe, pertsona ezagutu barik aurreiritziak egiten dituzte.

Ez dugu horren gainean berbarik egin, baina zelan ikusten duzu Azkoitira joatea?

Bueno, urteen poderioz, hasierako indar eta ilusioak galdutxoak dira. 10-12 urte igaro ondoren, asmoak betetzen saiatu gara eta dagoeneko erdi beteak ditugu. Dagoeneko ez daukagu erronka berririk. Kasualitatez, gaur (joan den egubakoitza) jaso dut Azkoitiko izendapena, sei urterako. Arrasatera ere sei urterako ekarri ninduten... Eta urte horiek hirukoiztu egin ditut.

Nire ustez, edozein taldetan buruak aldatuz joan behar dira, errotazioa behar da, indarra dagoen bitartean jomuga berrietan sartzea oso ondo dago. Norberaren historiatik askeago sentitu, eta aurrean, erronka berriak! Gainera, barruan daudenek ikusi ezin dezaketena beste batek kanpotik, begi berriekin, ikusten ditut...

Azkoitia Gipuzkoa barrenean dago, mendiz inguratuta. Nortasuna gorde du eta oso erlijiosoa eta tradizionala da; gainera, azkoitiarrek elizan parte hartze handia dute. Ni Azkoitian nire kutsu gaurkotuagoa uzten saiatuko naiz. Abadeen urritasunaren aurrean, laikoaren parte hartzea bultzatu behar da.

Zein aholku emango diozu irailetik aurrera Arrasateko parroko izango denari?

Nork bere bidea hartu behar du. Hark parrokiaren modu baten funtzionatzen aurkituko du eta hark ikusiko du zer den bultzagarria eta zer aldatzekoa. Nortasunez, Jainkoaren gainean duen ideiaz eta, jakina, pazientzia handiarekin joka dezala. Herri baten heziketa oso motela izaten da, baina denboraz, maila baten, lorpenak egiten dira. Jendearen bihotzetan eta komunitatearen barruan kokapena edukitzea garrantzitsua da. Nik hemendik alde egiterakoan, maitasun borroka eta sentimendu mordoak utzi behar ditut. Behar bada, arrasatearendako aldaketa onargarria izango da, abade berriak ideia berriak ekarriko dituelako herria.

Autobus urbanoak behin-behineko geralekuak ditu, obren ondorioz

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Hilaren 18an, abuztu amaiera arte iraungo duten lanak hasi zituzten Obenerreka kalean. Hori dela eta, herri autobusa- ren bi lineak aldaketak izan dituzte, eta ondorioz, horien ibilbidea ohikoa baino luzeagoa izango dela jakinarazi dute lanen arduradunek.

Obenerreka kaleko lanak direla eta, bidea autoendako itxi egin dute Santa Marina eta Makatzena arteko bidegurutzean. Horren ondorioz, herri autobusek beste ibilbide bat egingo dute uztailaren 18tik abuztu amaiera arte.



ARTXIBOA

Autobusaren bi lineetan dute eragina aldaketek.

IBILBIDE ALDAKETA

Lan horiek autobusaren bi lineetan dute eragina: lehenengoari dagokionez, Makatzena geltokira iritsita, berriro ere Jose Luis Iñarra kaletik jaitsiko da, eta ohikoa duen Obenerrekako geldialdia kale biak elkartzen diren bihurgunean egingo du. Ferixalekutik aurrera jarraituko du autobusak, eta Gelma parera iritsita-koan, Obenerreka kalera igoko da, zubiraino. Behin hara iritsita, ohiko bidetik segituko du herriko autobusak.

Bigarren lineari dagokionez,

horrek ere hainbat aldaketa izan ditu: Santa Teresa kaleak moztuta jarraitzen duenez gero, hango kaleko eta Agerreko geldialdiak Galizia eta Agerre kaleen artean egingo ditu. Obenerrekako geldialdia oinezkoendako pasealekuaren parean egingo du; gero, Gipuzkoa etorbidera jaitsi, Ferialek Jose Luis Iñarrara abiatu, eta handik Makatzena joango da. Hantxe geldialdia egin ondoren, ohiko ibilbideari ekingo dio herri-

autobusak.

Ibilgailuak Santa Teresa kaletik uztail amaieran edo abuztu hasieran normaltasunez ibili ahal izango direla uste dute kale-lanen arduradunek.

Leintz Garraioak enpresak, bestalde, autobusen erabiltzailei aditzera eman gura die egingo duten ibilbidea ohikoa baino luzeagoa izango dela, eta alde zuzenetik eskertzen die aldaketa horiek ulertzea.

Dagoeneko mila bisitari baino gehiago Industria Erakusketan

UBANE MADERA

Industria Erakusketa zabaldu zutela hilabete besterik pasatu ez bada ere, dagoeneko mila bisitari baino gehiagok ikusi dute industriaren gaineko Arrasateko erakusketa. Abuztuan, oporrak hartuko ditu.

1.300 bisitari baino gehiago hartu ditu Saiolango erakusketa industrialak zabalik izan den hilabete bakarrean. Erakusketa-ko arduradunak, Isabel Aramendiak esandakoaren arabera, bisitari gehienak mondragoeta-

rrak izan dira, baina, kanpotik ere etorri ei dira zenbaitzuk.

HIRU TALDE

Isabel Aramendiaren esanetan, hiru motako bisitariak ditu erakusketak: pertsona nagusiak, batetik. Interes handia erakutsi ei dute pertsona nagusiek, eta oso jarrera positiboa, asko gustatu zaie erakusketa. Bestetik, eta helduen artean, badaude erakusketa xehetasun-handiarekin bisitatu dutenak. Hau da, ia guztia irakurri eta begiratzeaz gain, galderak ere egin izan dituztenak. Era berean, horiekin batera,

badaude bisita motzagoa egin izan dutenak ere. Azken horiei gehiago gustatzen ei zaie argazkiak begiratzea eta gutxiago irakurtzea. Eta, hirugarren bisitari mota enpresetako jendea da. Isabel Aramendiak esan digun moduan, zelanbait turismo industrialak duen eskaera ere bete du Erakusketa Industrialak.

ABUZTUAN ITXITA

Orain, oporretan, ateak itxiko ditu erakusketak. Eta, gero, abuztuaren amaiera aldera zabalduko dute berriro. Hain zuzen ere, abuztuaren 27an, martitzena.

Guztia gertu dago kultura etxea izango dena egiteko

Gaztetxea hustu eta gero, dena gertu dago Arrasateko kultura etxe berria izango dena eraikitzen hasteko.

Lehenik eta behin, barruko guztia botako dute, eta gero, eraikitza bera berritzen hasiko dira. Jakina, ur eta saneamendu lanak egingo dituzte, argindarra berri-

tuko dute, megafonia, telefono hariak... sartuko dituzte. Eta gero hasiko dira kultura etxe izango dena eraikitzen. Hain zuzen ere, bost gune eraiki gura dituzte frantziakotarren komentuan: sotoa, beheko pisua, solairuen artekoa, lehenengo pisua, eta teilatu azpikoa. Gune horietan udal liburu-

tegia eta umeen liburutegia, bai-larako erakusketa aretoa eta orotariko aretoa egongo dira, besteak beste.

Ia lau milioi euroko aurrekontua dute lanok egiteko, eta asko jota hogeita lau hilabeteko epea; hortaz, bi urte baino lehen estreinatua ahal izango dugu.

Abuztuan izango da zer aukeratu Uribarriko jaietan



UBANE MADERA

Hogeita hiru urtean lehenengo aldiz, Uribarri auzoko kaletarrek eta baserritarrek bat egin, eta jaiak batera ospatuko dituzte. Orain, Arrasateko auzorik handiena da Uribarri.

San Bartolome da uribarritarren zaindaria. Abuztuaren bukaeran da bere eguna, eta Uribarriko kaletarrek gurago izan dute auzoko jaiak irailen egitea, auzokideak oporretatik bueltan datozenen. Uribarriko baserritarrek, aldiz, bestelakoa pentsatu izan dute, eta abuztuan ospatu dituzte jaiak. Baina, aurtun, 23 urtean lehenengo aldiz, bat egitea erabaki dute, eta

abuztuan ospatuko dituzte jaiak.

Gainera, ez dute edozelako egitaraua prestatu! Abuztuan hemen daudenek, ez dute aspertzeko astirik izango Uribarri joanez gero. 22an, eguna, hasiko dira jaiak eta 25ean, domeka, bukatu. Gauero musika izango da, dantza egiteko. Trefasako bola-tokia ere egunero izango da zabalik, 11:00etatik aurrera. Horrez gain, egubakoitzean herri kirolak izango dira, Trefasan, baita bertsolari gazteen saioa ere. 24an, umeendako jaialdia izango da. Herri bazkaria ere egingo dute baserritarrek zein kaletarrek. Eta, auzoko erretiratuek ere zerbait berezia prestatu dute. Hori eta gehiago izango da Uribarriko jaietan.



Ferrerias kaleko jaiak iritsi dira


Egun bete jai antolatu dute Ferreriaskoek uztailaren 26rako. Goizean, etxafuegoak eta txistulariak arituko dira jai girotzan. Eta arratsaldean, 17:00etan, umeendako jolasak izango dira lehenengo, gero, 19:00etan, jolas gehiago, herri txikiteoa eta meza auzoko hildakoen alde. 21:00etan, berriz, afaria egingo dute, musika-saioa izango da gero, eta bukatzeko, zaku lasterketa.

Abuzturako, Zabaletako zubiko lanen lehenengo zatia amaitu gura dute

UBANE MADERA

Zabaleta inguruan egiten ari diren lanak aurrera doaz. Hain zuzen ere, abuzturako, lanen lehenengo zatia amaitu gura dute eta irailean zubi zaharra botako dute, eta berria eraiki. Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatuko dute guztia.

Aspaldi kendu zuten Zabaletan zegoen metalezko zubi. Joan den astean, berriz, habe erraldoiak ipini zituzten Eroski hipermerkatuaren parean. Asmoa da abuzturako zubiaren lehenengo tartea amaitzea. Irailean, berriz, zubi zaharra botako dute, berria eraikitzeko. Zubi berriak, Eroski eta han egingo duten industrialde berria (Roneo parean dagoen lursailean eraikiko dutena) batuko ditu, batetik. Horrela, lantegietara doazen automobilek eta kamioiek ez dute zirkulazioa eten, orain gertatzen den moduan. Bestetik, Arrasate eta Bergara arteko ibilgailuen zirkulazioa ere zubi horretatik pasatuko da. Eta, horrez guztiaz gain, oraingo bidearekin alderatuz gero, lanak egin ostean, askoz ere bide zabalagoa geratuko da ibilgailuendako.



Joan den astean, habe erraldoiak ipini zituzten Zabaleta aldean.


Aurreikuspenak betez gero, irailean hasiko dira zubi zaharra botatzen.

Horrez gain, aipatu beharra dago, lanak irauten duten bitartean, Zabaleta ingurutik oinez ibiltzea arriskutsua izango dela, izan ere, orain, errepidetik ibili beharra dute oinezkoek zati batean. Baina, hori bai, zubi berria egiterakoan, oinezkoendako pasabide berezia egingo dute, zubi

azpitik jendea gora eta behera ez ibiltzeko; era berean, orain arteko zubi baina askoz zabalagoa izango da.

HIRUREN ARTEAN

Guztira, milioi bat euro baino gehiagoko aurrekontua dute lanotarako. Arrasateko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artean finantzatuko dituzte lanak.



San Andresko parrokoak ere agur esango digu irailean

UBANE MADERA

Herriko parrokoaz gain, San Andreskoak ere herria utziko du irailean. Juan Jose Goenaga azpeitiarra hamalau urtez izan da San Andresko parrokoa. Orain, berriz, Donostiara joango da.

1986. urtera arte Donostiako Loiolan izan zen parroko Juan Jose Goenaga. Bi urte geroago, 1988an, Ipar Amerikako Pennsylvania izan zen pare bat urtez eta handik Arrasatera etorri zen. Gaur egunera arte.

Hamalau urte pasatu da ordutik eta orain, berriro aldatuko du bizitokia San Andresko parrokoak. Donostiara eramango dute berriro, oraingoan, Trintxerpetik gertu; hain zuzen ere, Zientzia Erlijosoen Institutuan jardungo du, seminarioko eraikinean.

PENA BAI, BAINA ASTINDU ONA
Juan Jose Goenagak adierazi

digun moduan, pena emango dio hemendik joateak, "harreman sendoak egin ditudalako, egoera asko ezagutu ditut eta horrelakoetan hartu-eman oso aberatsa izaten da. Ondorioz, haustura sortzen da eta baliteke alde egitean malkoak ere sortaraztea". Baina, horrekin batera, esan digu, ondo iruditzen zaiola aldaketa: "uste dut 14 urtean egin daitezkeela egin beharrekoak, eman dugu eman beharrekoa, eta hortik aurrera egiten dena errepikatzea da, hortaz, 14 urte egotea nahikoa da, erreleborako ordua da". Juan Jose Goenagaren esanetan, "etenaz egiten da giza-bizitza. Giza-giro batetik beste giza giro batera. Astindua da hori, baina, ona dela uste dut; horrelakorik ez balego, etxean amatekin egongo ginatete. On egiten digu".

Edozelan ere, gogorazi du irailean erdialdera arte ez dela lekuz aldatuko. Eta, joan aurretik ere agurra izango dela.

'Askatasun taupadak' goiburupean presoan aldeko festa egingo dute

UBANE MADERA

Askatasun taupadak goiburupean Elkartasun Eguna egingo dute irailean 21ean eta 22an Arrasaten. Preso eta errefuxiatuen aldeko festa izango da hori, eta, hain zuzen ere, haien egoera salatzeko eta konponbidea aldarrikatu

tzeko helburua du.

URTEBETEKO ETENA


Urtebeteko etena izan du Elkartasun Eguna, eta orain, Arrasateko ekitaldiarekin piztuko dute berriro. Bilbon egin zuten egun horren aurkezpena. Antolatzaileen esanetan, "inoiz baino

errepresaliatu gehiago dago, geroz eta herritar gehiago erbeste-teratuta, tortura eta tratatu txarrak eguneroko ogia dira..." Hori dela eta, horri irtenbideren bat bilatu behar zaiola aldarrikatu zuten. Zapalkuntza eta polizia bidezko konponbideak besterik ez dela izaten ere salatu zuten.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com



MAALAKO JAIETAN, EURIARI AURPEGI ONA

Domekan eta astelehenean, Maalako jaiak ospatu zituzten. Domekan, eguraldi ona egin zuen, baina astelehenean, gauzak dezente aldatu ziren. Arratsaldean, umeen jolasak egiteko ez zen inongo arazorik izan, eta Maalara hurbildu ziren

gazteek, besteak beste, zaku lasterketan eta itsulapikoak apurtzen daukaten abilezia erakutsi ahal izan zuten. Ilunkeran, euri zaparrada ederra bota zuen, baina Maalakoek ez zuten atzera egin, eta klean afaldu zuten, aterpean, baina.



WUSHU KUNG FU

Euskal Herriko Selekzioak 18 domina eskuratu ditu Europako Txapelketan

Italiarrak izan ziren txapelketako onenak, 22 domina eskuratuta. Euskal Herriko Selekzioa bigarrena izan zen, lau domina gutxiagorekin

XABIER URZELAI

Europako Wushu Kung Fu txapelketa Arrasaten jokatu da asteburuan, eta Euskal Herriko Selekzioak sekulako maila erakutsi du: guztira, 18 domina eskuratu dituzte, eta Italiarren atzetik geratu dira sailkapen nagusian. Dominak alde batera utzita, txapelketa biribila izan da, bai joko aldetik baita antolatzaileen aldetik ere.

Lehenengo jardunaldian, zapatuan, euskaldunek argi utzi zuten euren helburua Ikurrina erakustea baino zerbait gehiago zela. Zapatuan, Euskal Herriko ordezkariak hamahiru domina eskuratu zituzten: urrezko hiru, sei zilarrezko eta lau brontzezko; eta domekan, beste bost dominaren jabe egin ziren: urrezko bi eta zilarrezko hiru. Txapelketako protagonistetako bat Eduardo Sanz izan da. Nafarrak urrezko hiru domina eta zilarrezko beste hiru domina eskuratu ditu txapelketan. Txapelketan hainbat modalitate izan dira: Taichi, Taichi armekin, Tao Lu, Sanda eta Sanshou, besteak beste, eta euskaldunek guztietan erakutsi dute trebezia.

Eduardo Sanzek sekulako txapelketa egin du, baina ezin ahaztu Aitzol Fernández arabarrak, Bermeoko Erik Basañezek, Iparraldeko Frank Noedek eta Gasteizko Manuel Pereirak eginiko lana. Kirolari horiez gain, Euskal Herriko Selekzioko gainerako ordezkariak ere sekulako maila erakutsi zuten.

EMAKUMEETAN ERE, BIKAIN

Euskal Herriko Selekzioan emakumeek kontuan hartzeko maila daukatela ere argi geratu da txapelketan. Saioa Arenaza bermeotarrak lortu zuen emakumezkoetan lehen zilarrezko domina, baina ez zen azkena izan; izan ere, Iparraldeko Ixa Lizarralde zilarrezko beste domina bat eskuratu zuen Sanshou modalitatean.

Euskal Herriko Selekzioak inoiz egin duen txapelketa onena egin du aurten, eta Italiako Selekzioak bakarrik gainditu du. Italiarrak Wushu Kung Fuan maisu direla argi eta garbi erakutsi dute, eta eskuratutako 22 dominak dira horren erakusle. Txapelketan hirugarren Espainiako



Euskal Herriko Selekzioa bigarrena izan da, Italiaren atzetik.

JULEN IROINDOI

Selekzioa geratu da, urrezko hiru domina, zilarrezko hiru domina eta brontzezko domina batekin. Frantzia izan da laugarren, urrezko bi domina eta brontzezko bat eskuratu eta gero.

ERAKUSKETA IKUSGARRIA

Domekan, nahi baino azkarrago amaitu zen txapelketa. Finalak domekan jokatu behar ziren, baina batzuk zapatara aurreratu zituzten. Hori dela-eta, domekako jardunaldia uste baino motzagoa izan zen. Borrokak amaituta, erakustaldien unea iritsi zen. Borrokak ikusgarriak izan baziren, erakustaldiak ez ziren gutxiagorako izan. Uarkapera hurbildutako ikusleek Wushu Kung Fuak eskaintzen dituen posibilitateez gozatzeko aukera izan zuten.

Euskal Herriko Selekzioko ordezkariak oso pozik agertu ziren egindako lanarekin. Joan den urtean izan zen Munduko Txapelketan hainbat domina eskuratu zituzten, baina ez horrenbeste. Euskal Herriko Selekzioak inoiz ez du Wushu

Kung Fuko Txapelketa baten horren lan txukunik egin. Horrez gain, domina horiek guztiak etxean eskuratu dira, Euskal Herrian, eta horrek ere poztasun berezia ematen du.

TXAPELKETA BIRIBILA

Asteburuan Arrasaten jokatu den txapelketaren balorazioa egiteko ordua iritsi da, eta antolatzaileak baikor azaldu dira. Joko aldetik txapelketa biribila izan dela azpimarratu zuen Patxi Marta Euskal Herriko Wushu Kung Fu Federazioko presidentek: "Selekzioek erakutsitako maila oso ona izan da, eta txapelketa lehiatsua izan da. Horrez gain, txapelketaren amaieran izan diren erakustaldiak benetan ikusgarriak izan dira". Joko aldetik txapelketa biribila izan bada, antolatzaileek ere lan polita egin ei dute, ez da-eta inongo arazorik izan. Patxi Martak, gainera, Arrasateko Udalak eginiko lana azpimarratu gura izan zuen, batetik, txapelketa Arrasaten egin delako, eta, bestetik, beti laguntzeko prest agertu direlako.



JULEN IROINDOI

Borroka amaitutakoan kiroltasuna zen nagusi.

Selekzioek oso maila ona erakutsi dute eta txapelketa oso lehiatsua izan da

Txapelketako antolatzaileek oso lan txukuna egin dute, eta ez da arazorik izan

Txapelketa amaieran izandako erakusketak benetan ikusgarriak izan dira

Hona hemen 2.Merkealdiak

Garibai Etorbidea, 2-6 • ARRASATE

SPORTLAND

FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

FUTBOLA

Arrasateko gazte taldeek txapelketa polita egin dute aurten ere Gasteiz Cup-en

Hainbat mailatan, Arrasateko lau talde iritsi ziren finalera eta bi taldek lehenengo postua eskuratu zuten

XABIER URZELAI

Aurten, Gasteiz Cup futbol txapelketako seigarren aldia jokatu da, eta Arrasateko futbol taldeek, beste behin, maila polita erakutsi dute. Solano Txiki eta San Josepe txapelketa eskuratu zuten euren mailatan.

Europa mailako gazteendako futbol txapelketa garrantzitsuetakoa da Gasteizkoa, eta aurten, sei urte egin ditu. Estatuko hainbat herritako taldeak izan dira, baina horrez gain, Europako lurraldeetako hainbat ordezkarri ere izan dira: Errumaniako, Zipreko, Italiako, Portugalgo eta Frantziako taldeak, besteak beste.

Mondragoeko lau taldek hartu dute parte aurtengo aldian. San Josepe Harrobiak talde bi izan ditu aurten: infantil mailako lehenengo urtekoak eta bigarren urtekoak. Horiez gain, Solano Txiki eta Joma taldeak ere izan dira. Lau taldeek ere lan ezin hobea egin dute. Infantil maila-



Aurten ere Mondragoeko taldeek maila ezin hobea erakutsi dute. Bi taldek, euren mailatan, txapelketa eskuratu dute, eta gainerako taldeak finalean izan dira.

ko lehenengo urteko San Josepe Harrobiak taldeak lehenengo postua eskuratu zuen. Finalean, Marino Yusteren mutilek penaltietan irabazi zioten FK Macedonia taldeari. Talde bereko biga-

rren urteko infantilak ere finale-ra iritsi ziren, baina José Ocón entrenatzailearen mutilek ez zuten zorte handirik izan; galdu egin zuten, penaltietan, Arabako Ariznavarra taldearen kontra.

Hamabi urtekoen mailan, berriz, Mondragoeko talde bi oso maila ona erakutsi eta finalera iritsi ziren.

Mondragoetarrak Zipreko, Errumaniako, Gaztela eta Leon-

go eta Arabako taldeen kontra neurtu behar izan zituzten indarrak, eta Mondragoeko talde biak finalean iritsi ziren. Azkenean, Solano Txiki taldea nagusitu zen finalean.

ARRASATE PRESS

Ospatu gurekin
10.
urtebetetzea

Parte hartu
600 €
uztaileko azken
zozketan.

24an gaueko 10etatik aurrera,
dantzaldia Seber Altube plazan.
Bertan zozketa egingo da.

FILIPINETAKO ETA BULGARIAKO DANTZA TALDEEN KONTZERTUA

Filipinetako eta Bulgariako dantza taldeen emanaldia Monterronen

IKER BARANDIARAN

Uztailearen 29an, astelehenean, nazioarteko folklore dantzen emanaldia izango da, Monterron parkean, 22:30ean. Besteak beste, Bulgariako Naiden Kirov eta Filipinetako Karangahan taldeak izango dira.

Datorren astelehenean, uztailearen 29an, nazioarteko dantzen emanaldia ikusteko aukera ezin hobe da, Monterron parkean, 22:30ean. Sei euroren truke (bost euro, Gazte Txartelarekin), Bulgariako Naiden Kirov taldearen eta Filipinetako Karangahan taldearen emanaldia ikusi ahal izango dira.

Naiden Kirov taldea 1960. urtean sortu zuten, Danubio alboko Rousse hirian, Bulgarian. Taldea sortu zenetik hona, Ivan Donev izan da taldearen zuzendaria eta koreografoa. Taldeak bere baitan orkestra bat dauka eta, horrez gain, dantzariak eta abeslariak ere baditu. Naiden Kirov taldeko orkestran Bulgariako musika instrumentu tradizionalak (kavala, gaita, danborra...) aurki ditzakegu, baita ohiko instrumentuak ere: esaterako, akordeoiak eta baxuak. Taldeko dantzari guztiek abestu ere egiten dute, eta orkestrakoek ere tarteka dantza egiten dute. Azken baten, Naiden Kirov taldearen emanaldi folklorea, dantza eta antzerkia uztartzen ditu.

Are gehiago, Bulgariako hainbat eta hainbat inguruetako dantzak eskainiko dituzte Monterron parkean. Era berean, dantza motaren arabera, ingurune bakoitzeko arropa bereizgarriak jantziko dituzte. Hain zuzen ere, artile eta kotoiez egindako jantziak, emakumeek buruan daramatzaten apaindura bereziak, alkandora zuriak, eta beste batzuk. Dantzei dagokienez, orokorrean, Bulgariako dantzak azkarrak, erritmo handikoak eta arima handikoak dira.

Horrenbestez, Bulgariako taldearen emanaldia oso ikusgarria izango da, ziur, baina Filipineta-



ARRASATE PRESS

Naiden Kirov taldeak Bulgariako hainbat dantza mota eskainiko ditu

ko Karangahan taldeak ere badauka zer erakutsi.

KULTUREN NAHASKETA HANDIA

Filipinetako uharteak oso kokagune berezian daude. Hori dela eta, hainbat eta hainbat kultura bizi dira hantxe: txinatarrak, japoniarrak, kaukasiarrak baita espainiarrak ere. Horrek guztiak

Filipinetako Karangahan taldeak hainbat eta hainbat dantza eta ohitura batu ditu

eragin handia dauka, jakina, eta, hori dela eta, Karangahan taldeak kultura horiek guztiak batu egin ditu. Filipinetako dantza talde horretako partaideek erabiltzen dituzten janzkerak era askotakoak dira, baita dantza motak ere. Esate baterako, Filipinetako dantzari batzuek Andaluziako *martillak* janzten dituzte, eta dan-

Karangahan taldeko musikariek gitarrak eta banbuzko makilak erabiliko dituzte

tzari batzuek jota erritmora egiten dute dantza. Dantzei dago kienez, arabiarren eta tribuen irudikapenak ere egiten dituzte.

Musika instrumentuei dago kienez, Filipinetako musikariek gitarrak eta banbuzko makilak erabiliko dituzte. Horrekin guztiarekin, ikuskizun paregabea izango da, ziur egon.

Film laburrak ikusgai Monterron parkean

Gaztetxeko partaideak -hau da, AGAKOko lagunak- gaztetxe barik dauden arren, ekintzak antolatzeko gogoia eta asmoa dutela argi eta garbi erakusten dabilta. Duela gutxi Mauleko gazte batzuekin elkartrukea egin ondoren, uztaileko azkeneko egunetarako film laburren emanaldia prestatzen dabilta.

Izan ere, duela hilabete batzuk, Arrasateko, Andoaino eta Tolosako gazte batzuek Arrasateko gaztetxean film laburren emanaldia antolatu zuten. Gaztetxekoei -hau da, AGAKOkoekoei- ona iruditu zitzaion eta azken asteotan halako emanaldi bat prestatzea bururatu zaien. Gaztetxerik ez daukatenez eta Udalak gazteei egindako eskaintzaz baliatuz, erabaki dute film laburren emanaldia Monterron parkean egitea. Hain zuzen ere, emanaldia datorren astelehenean, uztailearen 30ean, izango da, gaueko hamar eta erdietatik aurrera, eta doan izango da.

EUSKAL HERRIAN EGINDAKO LANAK

Film laburren emanaldi hori antolatzeko asmotan hainbat lagun elkartu dira, eta azken egunotan, ikusgai izango diren film laburrak aukeratzeko dabilta. Antolatzaileek aurreratu diguten, oraindik ez dute aukeraketa osoa bukatu, baina ikusi ahal izango diren film laburren gehienak Euskal Herrian eginak izango dira, gaztelaniaz zein euskaraz. Era berean, film labur horiek ikusle gazteei zuzenduta egongo direla azaldu digute.

Film laburren emanaldia 22:30ean hasiko da eta, gutxi gora-behera, hiru bat ordu iraungo du. Tartean, ordu erdi inguruko atseentxoak egingo dute. Hamar bat film labur emango dituzte, eta horietatik, film bat arrasatear batzuek Berri Txarrak taldeko abesti baten gainean egindako bideoklipa izango da.

Horrez gainera, dagoeneko ziurtatuta dauzkaten film laburren artean, Alex de la Iglesia zuzendariaren lehen lana, *Mirindas Asesinas*, eta 3D izeneko film laburra ere ikusi ahal izango dira. Esan bezala, emankizuna doan izango da eta eguenetako zinekluberako erabili ohi dituzten gailu berberak erabiliko dituzte.



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50

Monte
taberna

Maatako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa, 2. 5-6 Pab.
Tel.: 943-71 21 41
Faxa: 943-71 21 40

CLUB
IYOLA

Elgetara bidea
BERGARA
943 76 11 29

GUREGAIK/ UDAN, IKASTEN

Gazte askok ikasteko aprobetxatu beharko dute uda garaia

XABIER URZELAI

Abuztuko oporrak geroago eta gertuago daude, baina askok ez dute oporrik izango. Urtean barrena lasai samar ibili direnek edo azterketekin zorte handirik izan ez dutenek abuztuan ikasi egin beharko dute, ze erremedio!

Udan ikasi beharra ez da atzoko kontua. Askok ezin izaten dute ikasturtea behar den moduan amaitu. Bueno, badira etxeko lanak egin behar diren unean egiten dituztenak, baina gazte askok ikasteko aprobetxatu behar izaten dute abuztua. Irailean, ikasturte hasiera izaten da, baina askorendako, azterketa ordua ere bada, eta, askotan, atzera edo

Argitaletxeek udan liburu bereziak kaleratzen dituzte, ikasitakoa gainbegiratzeko

aurrera egiteko azken aukera.

GAINBEGIRATZEKO EZ BADA ERE

Gaztetxoek ez dute oraindik azterketarik egiten, baina haiei ere abuztuan ikastea tokatzen zaie. Ikasturtean ikasitakoa ez ahazteko helburuarekin, argitaletxeek udan liburu bereziak kale-



ARRASATE PRESS

Udan ikastea askoren buruhaustea izaten da.

ratzen dituzte, eta akademia batzuek ere eskolak eskaintzen dituzte. Azken baten, bi hilabete

eta erdiko oporraldia zerbait egiteko aprobetxatu behar, gurasoak bakean uzteko ez bada ere.

LOTSABARIK/ Nestor Zabaloa

“Gerora begira ez nuke herrian bizi gura”

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Ederki frogatu digu Nestorrek gauza gutxiak lotsatzen dutela, eta galdera hauei erantzuteko prest azaldu da. Abuzturako ez egi du plan berezirik, eta indarrak festetan uzteko asmoarekin ikusi dugu.

• Txikitan, zer izan gura zenuen?

Pertsona askok bezala, suhiltzaile edo astronauta izan gura nuen. Orain, aldiz, lantegiren baten lanpostua edukitzearekin konformatzen naiz.

• Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?

Bikotearekin, eta seme-ala-

bak edukitzea gurako nuke. Ez dut uste nire bizilekua Arrasaten egongo denik.

• Zein da, zure iritziz, adin ideala?

Orain dudana, hamazazpi; askatasuna izaten hasi naiz-eta.

• Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?

Jendearen portaerari, eta, batez ere, ingurukoari.

• Zerk arduratzen zaitu gehien?

Une honetan bertan, gauza gutxiak, baina normalean, ikasketek betetzen dute arduraz nire burua.

• Zerk ematen dizu lotsa?

Ohartzen ez naizenean jendeak nitaz kuxkuxeatzeak.

• Zure bertute bat? Eta alde txar bat?

Pertsona ona naizela esaten didate ingurukoek, hori izango litzateke alde ona. Txarra, aldiz, burugogorra naizela.

• Zure gorputzeko atalrik gustukoena?

Nire gorputzaren forma atsegin dut. Lehen, orain baino kirol gehiago egiten nuen, eta nahiko ondo dudala uste dut.

• Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?

Hasiera baten, jendearen fisikoari begiratzen diot begia, batez ere, ipurdiari. Gero, izateko erari.

• Arrasaten ligatzen da?

Nire iritziz, ez.




ADINA: 17 urte • IKASKETAK: LOGSE 1 eginda • ZALETASUNAK: Motorra eta festa

LIBURU BAT: Ez zaio irakurtzerik gustatzen • FILM BAT: 'Trainspotting' • MUSIKA TALDEA: Metallica • KIROL TALDEA: Mondra



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72



IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel: 943 79 76 58
ARRASATE

BEHEKODENDATIK

Ainhoa Murgiondo

NACEX MENSAJERIA ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

Ainhoa mondraguetarra da, baiñe Aretxabaletan bizi da. Nacex enpresan egiten dau lan, administraziñuen, ikasi be hori ikasi euen-eta, Eteon. Ainhoa ez da hara eta hona gauzak erueten ibiltten, baiñe ofiziñako erritmue be ederra izeten da. Lan horretan asperketie, hortan, ez da bat be errex.

Amets bat?

- Ondo bizi izetie.
- Eta amets txar bat?
- Gaixotasunek.
- Egin dozun azken biajie?
- Kubara, juen dan urtien.
- Txartel horixe, zeñei?
- Politikuei.
- Eta gorrixe?
- Hori be politikuei.
- Pelikula bat? Liburu bat?

Disko bat?

El aceite de la vida / Informe Pelicano / Ken7 taldie gustetan jat.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Momentu honetan, ezer be ez dauket sobran.

Eta faltan?

Dirue.

Etxeko zapatillak ala zapat-ak?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondra- guetik?

Herrixen dauen girue eta hamengo jentie.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Aparkalekuen arazue.

Eta lehendakari izengo bazi- tze?

Hamengo egoerie konponke- tan ahalegindduko nitzake.

Mendi bat?

Urbixe aldie gustetan jat.

Bizi izetera hiri batera jue- tekotan, nora?

Donostiara.



“Mensajero ona izeteko orientaziño ona eukittie inportantie dala esango neuke”

Ezagutu dozun pertsona inte- resante bat?

Senarra.

Eta ezagutu nahiko zeun- kiena?

Geure aittona bat, ezagutu ez neuen bakarra.

Zertan gastauko zeunke dirue gustora?

Biajetan.

Bizio bat?

Erretiari itxi barri dutzet, eta hortxe nabil neure buruakin burru- kan.

Tranpan ibilttekotan nor- baittekin, zeñekin?

Ez naz tranposue.

Eta zeñekin emungo zeun- ke bueltatxo bat?

“Azkartasunek baiño gehixago, segurtasunek dauko lehentasune. Baiñe azkarrak be bagara”

Ez naz tranposue, eta infidela be ez.

Ze da hara eta hona gehixen erueten dittuzuen gauzak?

Enpresetako sobriek.

Zein da zuen lelu? Azkarta- sune ala segurtasune? Bixek bate- ra ez die-eta oso bateragarririk.

Ez, segurtasunek lehentasun haundixague dauko, baiñe azka- rrak be bagara.

Multetan, hortan, dezente gas- tauko dozue.

Ez, ba. Horretan be oso onak gare.

Ze biher da mensajero ona izeteko?

Orientaziño ona eukittie inpor- tantie dala esango neuke.

NIREBIDAIAHURA/ Beñat Olalde

Europan zehar / 2002ko apirilaren erdialdean

H amalau egunean Europan zehar eginiko bidaian leku asko bisitatu zituzten Beñatek eta harekin ikasketa-bidaian joan zirenek. Frantzian Paris eta Avignon bisitatu zituzten. Herbehereetan Amsterdam, Belgikan Brujas, Suitzian Berna, Alemanian Munich eta Txekian Praga.

Beñaten esanetan, gehien gustatu zitzaizkion hiriak Praga eta Brujas izan ziren. Hala ere, beste hirietan hainbat gauza ikusteko aukera izan zuen. Esaterako, Municheko Estadio Olinpikoa, edo kontzentrazio-esparruak, Eiffel dorrea, eta abar.

Eguraldiari dagokionez, hotz egin zuen arren, nahiko eguraldi polita izan zutela aipatu digu: “Munichera iristerakoan elurra egin zigun. Baina ez zuen askorik iraun”.

Hainbat arazo izan zituzten bidaian zehar, autobusarekin, esaterako. Avignonera iristear zedela, ibilgailua areka batera sartu zen. Beste autobus bat bidali zuten Gipuzkoatik, “aurrekoa baino zaharragoa”. Arazoak ez ziren hor amaitu, Munichera sartzen ibilgailuak auto bat jo zuen-eta. Eta beste arazo bat: gauez autobusera ezezagunak sartu ziren eta lapurretan egin zuten.

Brujasen bizikleta alokatu eta hiria zeharkatu zuten. “Bizikletei lehentasuna ematen diete Belgikan eta Alemanian, eta eredutzat hartzeko gauza da, nire uestez”. Belgikako hiriburuko gauak dastatzeko aukera izan zuten Beñatek eta beste zazpi lagunek; asko gustatu ei zitzaizen.


Suitzako txokolata probatzea gomendatzen digu arratsatearrak: “Niri hori esan zidaten, eta gozozaleondako aukera paregabea da. Nire etxean eskertu zuten oparia”.

Gustura geratu zen bidaiarekin, nahiz eta lo egiteko lekua oso eroso ez izan. “Hori jakinda egin genuen bidaia, eta hamalau egun besterik ez zenez, ez zuen askorik axola”. Euskal Herritik ez dela askorik irten aipatu digu, eta ikasketa-bidaian izaniko esperientziak ez zuten desilusionatu. Errepublikatuko lukeela ziurtatu du.


ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL



Brujasen bizikletan ibiltzeko eta hiria ikusteko aukera izan zuten.



“Naziek erabilitako gas-ganbarek zirrara handia eragin zidaten”

 **Txitxinpe**

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

 **Pando Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebedun hizkiak

 **ARRASATE HOTELA**

Biteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



ARRASATE
Cristian Pozo
22an, 8 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Garazi Golmaio
25ean, 8 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARAMAIO
Gurutze Uribarren
Zorionak eta urte askotarako! Etxekoak eta lagunak.



ARRASATE
Istar Dapena
3an, 6 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



TXANTXIKUARRA
Izaskun Bolinaga
23an, beste urtetxo bat. Urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Uxue Garro
28an, 7 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



ARRASATE
Alazne Gallastegi
23an, 11 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE
Monika Montero
Abuztuaren 11n, beste urtetxo bat, umetxo... Urte askotarako! Lankideak.



ARRASATE
Jonathan Barrionuevo
30ean, 3 urte. Urte askotarako! Bizilagunak.



**Zorion itzazu zure lagun
eta senitartekoak.**
Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago
argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.

Adi!

Hurrengo zenbakia irailaren 6an argitaratuko denez, abuztuaren urteak egin dituztenak ere aterako ditugu. Irailaren 3a baino lehenago jasotzen diren argazkiak argitaratuko ditugu.



**Parques
y Jardines**

- Parke eta lorategien sorkuntza.
- Lorazaintzako mantenimendua orohar.
- Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Txirritola

ARAMAIO / Eguaztena / 2002ko uztailaren 24a / 35. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com

Babes ofizialeko etxebizitzak berbagai osoko bilkuran

UBANE MADERA

Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko beste pauso bat eman du Aramaio Udalak. Halaxe jakinarazi zuten atzo egindako osoko bilkuran. Horrekin batera, zenbait auzotako lanak ere aztergai izan zituzten bilera horretan. Oporrak direla eta, Udalbatzarraren hurrengo bilera irailaren 18an izango da.

Opor aurreko azkeneko bilkura izan zuen atzo Udalbatzarrak, eta gai-zerrenda luzea zuten aztergai, gainera. Tartean, herriarendako interes handia dituzten gaiak. Adibidez, babes ofizialeko etxebizitzaren gaiarekin lotuta, urbanizazio proiektua egin baino lehenagoko pausoa eman dutela jakinarazi zuten atzoko batzarrean. Horrek esan gura du, seguruenik irailean urbanizazio proiektua egiteko

hurrengo pausoa eman ahal izango dutela. Hortaz, Aramaion babes ofizialeko 44 etxebizitza egiteko proiektuak aurrera jarraitzen du.

Horrez gain, zenbait lan ere berbagai izan ziren batzarrean. Esaterako, Oletako saneamendu eta bidea zabaltzeko lanekin lotuta, diputazioari mailegu bat eskatzeko aukera zuten aztertze. Horrekin batera, Arexolako saneamendua egiteko eta argindarra lurperatzeko lanak adjudikatze baldintzak onartzea proposatu zitzaion Udalbatzarrari. Baita, Matxainen konponketak egiteko proiektua onartzea ere. Besteak beste, zubia botatzeko asmoa dute. Lanon aurrekontua 191 mila euro pasatzekoa da.

SALAKETA

Bestalde, udalerriko arau subsidiarioak euskalduntzeko proposamena eta osasun zerbitzuak euskalduntzeko mozioa ere aztertu zituen Udalbatzarrak. Baita, herriko jaien azkeneko egunean ezezagun batek *Bakea, ETA ez zioen pankarta* udaletxetik kendu izana salatzea ere.

Edozelan ere, albiste hau idaztean bilera egin barik zegoenez, ez dakigu zein erabaki hartu dituen Udalbatzarrak.



ARTXIBOA

Babes ofizialeko etxebizitzak egiteko beste pauso bat eman du Udalak.



Omenaldia Tellamendiri

Giro ederrean ospatu zuten aramaioar dezentek Tellamendiko gurutzera ipini zuteneko hogeita bosgarren urteurrena. 11:00ak alderako iritsi ziren gehienak gurutzera eta hasteko, Benito Nafarrate apaizak meza esan zuen, duela 25 urte egin zuen moduan. Eta gero, trikiti eta pandero doinuekin, poliki-poliki Andramari ermitarantz jaitsi ziren han batutakoak, hamarretakoa egiteko asmoarekin. Aramaioko herritarrekin batera, Arrasatetik eta Aretxabaletatik ere igo zen zenbait mendizale egun berezi hori ospatzera.

HERRITARREN HITZA / Arantza Ibañeta • Langilea

Disfrutatu eta ondo ibili opor garaian

Irailan denok makal eta triste hasten gara, baina indarberrituta, gehienetan. Orduan asmo barriak kontatzen hasten gara: yoga, hizkuntzak, ea. Dana da asmoa.

Gero, udazkena eta berarekin: arropa barria, katarrorako bakunak, depresiorako pilulak eta ah! kotxea erosteko eskaintza zoragarriak. Eguna moztu, gaua luzatu eta hotza. Hilabete-ara danok penei adio esan! Gabonak dira eta. Turroia, erregaliak, txanpaina, bidaiak leku beroetara. Pozik eta kontent egoteko sasoa da! Hori gutxi balitz, urte barriaz, arropen merke-merke. Jakina, barriro ere autoa eskuratzeko

aukera paregabea! Atzera ere, asmo onak: erretzeari utzi, kilo batzuk galdu, uda laster dator eta, pertsona hobea izan...Eta gainera, Gabonetako tripakadak arintzeko porrusalada astebe-tez. Ondoren, Aste Santua; batzuentzako bekatuak barkatzeko baraualdia eta zigorra. Beste batzuk ordea, bakazioetara atzera ere. Udaberria da eta, neguko nekea somatzen dugu, osteraren depresiorako pilulak dendetan, ah! eta argaltzeko! uda gainean



"Zaindu eta bueltan elkar ikusiko ahal dugu"

baitaukagu! Alergiak, asmetikoentzat garai eskasa.

Eh kontuz, uda agudo dator! Gertatu dituzu oporrak? *Aspaldi! Oraindik ezer ez, baina norabait joan behar dut!* Azala prestatu beharra, UVA izpiak iztarrak erakusteko, azal zuria aizu, gaizki

ikusita dago. Eta...zelulitisa? trankil denetarik daukazu tebibistak neska ederren bernak izan gura badituzu. Ah, kotxe barria beharko dozu bidaia luzea egiteko.

Azkar, azkar, bizitza motza da eta aprobetxatu!

Abiadura honekin, ailegatu gara udara! Igaro da urtebete; nola bizi behar dugun eta nolakoak izan behar dugun esanaz, aldiro bonbardeoak jasotzen, geure burua non dagoenik ere jakin barik. Zenbat lagun libratuko da horretatik? Zuentzako erantzuna.

Urtebetez gertakizun gehiagoz betetzen gara. Eta zorionez, diotsuet, urte amaieran, gauza barriak daroatzagu biyotzien. Hala bedi.

Jaun-andreok, deskantsatu, zaindu eta bueltan elkar ikusiko ahal dugu. Ondo-ondo izan zudeten lekuan zaudetela.

LABUR

Abuztuaren amaierarako, San Adrian eguna

Oporretara joan aurretik ezin dugu ahaztu Azkoagakoek San Adrian eguna prestatuko dutela abuztu amaierarako. San Adriango ermita berritu zuteneko ohiturari jarraituz, abuztuko azkeneko zapatuan ospatuko dute zaindariaren eguna, hilaren 31n, hortaz. Hasteko, meza izango da ermitan, 12:00etan. Gero, salda banatuko dute, musika doinuekin giroa alaituta. Eta, auzokoei bazkaria egingo dute segidan. Bukatzeko, erromeria izango da. Eguraldi eskasa eginez gero, berriz, Azkoagako elizpean izango da festa.

HERRIKO AUZOETAN

IBARRA II

Orain dela hogeitun urte baino gutxiago eraikitako etxebizitzak, bainu etxea botatzearen, eta eskola, pilotalekua eta ingurabidea eraikitzearen ondorioz, asko aldatu da haren itxura, gaur egungo denboretara egokitu.

Aipatu beharreko eraikinen artean, bi nabarmendu beharko liriateke: udaletxea eta eliza.

Edozelan ere, Ibarra elizate "kalea" baino gehiago da. 36 baserri ere Ibarren barruan daude; dudu barrik, horiek izan ziren aurreneko bizilagunak, Zalgoren izenarekin ezagutzen zenean. Ibarren sorreraren berri jakin gura gero, seihun urte atzera egin beharra dugu. Garai hartan, ia inor ez zen bizi Ibarren. Gogoratu dezagun, elizate izena denon intereseko gaiak aztertzeke eliza aurrean batzen zen taldeari esaten zitzaion izena dela. Udal txikiak modukoak ziren, euren mendiekin eta bide edo eliza komunekin. Hori guztia zaintzeko konpromisoa zuten guztiek. Gaur egun Ibarra dagoen tokian, eliza Zalgoko mendixkan zegoen, gaur egun kanposantua dagoen lekuan.

"Aramaioko ibarren iragana eta oraina".

Jesus Maria Elejalde

GIZARTEA

Oporretara joaten ez direnek izango dute zer egin Aramaion abuztuan

Auzoetako makina bat jai ospatzen dira abuztuan. Hasteko, datorren astean, Uribarriko jaiak izango dira; abuztuaren erdialdera beste bi auzotan izango dira jaiak: Oletan eta Barajuenen. Eta, amaieran, San Adrian, Azkoagan. Oletarrek 15ean jaurtiko dute txupinazoa; goizean, meza izango da, eta gero, Andra Mari taldeak dantza saioa eskainiko du. 16:00etatik 19:00etara puzgarriak izango dira umeendako, gero antzerkia, eta bukatzeko, Gardokirekin erromeria. 16an, berriz, meza ostein, Vermouth dantza izango da eta gero auzo bazkaria. Bukatzeko erromeria eta aztia izango dira. Barajuenen, berriz, 15ean meza eta Vermouth dantza izango dute eguerdian. 17:00etan, berriz, mus txapelketa Koskoltegin, 23:00etan, erromeria eta 01:00etan, txerrikume harrapatzea. 16an, berriz, auzo bazkaria izango da 14:00etan, gero, ume-jolasak eta Inigo aztia. Erromeriarekin bukatuko dute.



BOTEPRONTOAN/ Oihane Perea · Aramaioko Bertso Eskolako arduraduna

"Uste dut, eskualdeari begira, Debagoienari emateko asko duela Aramaiok"

Aramaion indartsu dabilen zaletasun bat bertsolari-tzarena da. Manex Agirrek zeresan handia izan du horretan, edo halaxe esan digu, behintzat Oihane Perea, Aramaioko Bertso Eskolako arduradunak. Berarekin berbetan izan gara, hain zuzen ere, herriko bertso eskolaren gainean. Oihane bertsolari gasteiztarra da. Hamaika urterekin hasi zen bertsoetan. Orain 24 urte ditu eta Arabako Bertsozale Elkartearen arduraduna da:

Zelan iritsi zinen Aramaiora?

Orain sei bat urte, Araban zegoen bertso eskola bakarra Gasteizkoa zen. Guk gogoeta egin eta pentsatu genuen beste herrietan kimuak sortzea garrantzitsua zela. Aukeren artean, Aramaiok boto asko zituen, beharrezko baldintzak betetzen zituelako. Horrenbestez, hariak mugitzen hasi ginen, Udalarekin berba egin genuen eta neu etorri nintzen.

Noiz izan zen hori?

Orain lauzpabost urte. Gainera, garai hartan ez nuen gidatzeko baimenik eta sekulako abentura izaten zen Aramaiorako joan-etorria egitea.

Zenbat irakasle /ikasle zarete?

Bi irakasle: Manex Agirre eta neu. Eta, dozena erdi ikasle



"Manexen 'fenomenoa' dela medio, zaletasuna piztu da gazteen artean"

ditugu 11-12 urtekoak eta beste zortzi bat 15-17 urtekoak.

Manexek gazteei erakusten die eta nik umei. Horrez gain, orain bost urteko eskolan Lierni Altuna, Manex Agirre eta Andere Arriolabengoa ere zebiltzan. Baina, unibertsitate kontuengatik, banandu eta orain, Lierni eta Manex Arrasateko Bertso Eskolan dira eta Andere, Santutxukoan. Azken bi urteotan neu izan naiz Arrasateko eskolako irakasle. Talde majoa sortu da Arrasaten; esan daiteke eskualdeko ardi galduak batu dituela.

Aramaion zaletasun handia dagoela dirudi...

Bai. Joan nintzen lehenengoko urtean oso zaletasun arraroa zegoen. Baina, Manexen "fenomenoa" dela medio, gazteengan zaletasuna piztu da. Handia, gainera. Horrekin

"Uste dut, orain, Arrasateko Bertso Eskolako arima Aramaiok dela"

batera, bertso eskolak berak ere egin ditu ekintzak Aramaion (bertso txapelketa...) eta jende asko etorri zen (140 lagun, eta hori asko da). Esango nuke zaletasun hori nahiko azkar piztu dela, gainera. Eta zaila da horrelako zaletasun bat hutsetik sortzea, baina, Aramaion oso baldintza onak zeuden eta horrek fruituak eman ditu.

Maila altua ere badago, ezta?

Oso altua dagoela esango nuke. Umek euren adineko txapelketetan parte hartu dute aurten eta oso maila ona erakutsi dute. Nik uste dut, gainera, datorren urtean igarriko dugula gehiago maila hori, sariren batekin etorriko direla uste dut.

Datorren urtean aldaketak igarriko ditugu eskolan, ezta?

Bai. Azken batean pausiak eman dira eta jendea motibatuta dago. Uste dugu autonomiaz funtzionatu behar duela eta momentuan baditu baldintzak. Hortaz, bertako jendeak hartuko du ardura.

Zelan ikusten duzu etorkizuna?

Oso ondo. Ez, bakarrik Arabako herri moduan piztuta dagoelako; eskualdeari begira ere emateko asko eduki dezake Aramaiok. Uste dut, orain, Arrasateko Bertso Eskolako arima Aramaiok dela.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Batika	945 44 50 03
Udalekoa	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Pastetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
12:00	12:15	13:00
15:20	15:35	16:20
20:30	20:45	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:30	09:15	09:30
13:10	13:50	14:05
	17:00	17:15
19:30	20:15	20:30

OHARRAK

HELBURUA BETETA

Zuberoari laguntzeko taldeak lortu du bere helburua. Hau da, Aramaion 1.250 euro batu zituzten eta Pepe Carreterok, taldeko kideak, adierazitakoaren arabera, 1.500 euro batzea lortu dute. Hortaz, eskerrak eman gura diete egitasmoan parte hartu duten guztiei. Era berean, ekainaren 15ean Zuberoara egindako bidaiaren ikusitako ere deskribatu izan gura du Pepe. Hauxe kontatu digu: "Oso polita iruditu zitzaigun paisaia... baina Maulera iristean harrিতuta gelditu ginen, hiri hutsa zirudien. Hori oso arraroa izan behar litzateke hemen, hegoaldean, baina Zuberoan konkretuki industria ezak bizitasun eza ekarri die herriei, horrela, jendea Frantzia goialdera joaten da lanera eta astebururako bakarrik bueltatzen da Zuberoara. Hori ekiditeko lanpostuak sortarazi behar dira"; horra, beraz, euren ekimenaren arrazoiak.

ESKERRAK ZUEI

Oporrak datozela-eta, irailera arte agur esan behar dizuegu. Hain zuzen ere, irailaren 6an aterako da lehenengo alea. Horrek esan gura du urrian urtebete egingo duela TXIRRITOLA aldizkaria jaiotzen. Eta, aldizkari horren kazetari moduan, urtebete horretan Aramaiotik jaso dudana laguntza eskertu gurako nuke. Handia izan da, laguntza hori barik ezin izango genuke TXIRRITOLA egin. Hortaz, eskerrak asko guztietan, barkatu gaizki esanak, ondo hartu ondo esanak eta ondo-ondo pasatu oporretan.

ERRETRATUZAHARRA

Bakarrik
emakumeentzat
ziren lekuak

Arrasateko Emakumeak XX. Mendean liburuak esaten duenez, emakumeendako bakarrik ziren lekuak existitzen ziren lehen. Horren adibide da honako argazki zaharra. Arropak garbitzeko garbitoki baten argazkia da. Are gehiago, antzina Arrasaten ziren garbitokien argazki bakarrenetarikoa da. Hain zuzen ere, Zigorrolan zegoen garbitokiaren argazkia da.

Kontua da Meatzerekatik ura ekarri aurretik, emakumeek erreka bazterretara jotzen zutela arropa garbitzera. Baina 1906. urteko Udal Ordenantzetan ikus dezakegu dagoeneko existitzen zirela garbitoki horiek Arrasaten. Herriko auzoetan zeuden, baita, Zarugalden, Ferreriasen edo Iturriotzen ere. Arropa garbitzeaz gain, emakumeendako elkarguneak eta euren arteko harremanak sendotzeko guneak ere baziren garbitokiak.

Araudi berezia zuten leku horiek: adibidez, lehen arauak zioen garbitokietako arraskak eroso erabiltzeko moduan kokatuta egon behar zirela



eta ura hanketan ez sartzeko moduan ere egokituta egon behar zirela; era berean, hezetasunaren ondorioz sortutako gaixotasunak saihesteko, garbitoki guztiek burdinazko sareta izatea derrigorra zen.

Hirugarren arauak zioen garbitoki-

ra zihoanak itxoin egin behar zuela, lekua libre egon arte; laugarrenak zioen debekatuta zegoela 14 urtetik gorako gizonezkoak garbitoki publikoetan egotea; eta azkeneko arauak zioen arropa garbitzen ari zen emakumeak ezin zuela arropa utzi eta alde egin.


Argazkia: 'Arrasateko Emakumeak XX. Mendean' **Urtea:** XX. mende hasiera

Zuzenketa: Joan den asteko Erretratu Zaharrean, Aramaion fusilatutakoez berba egin genuen. Horien artean, Ramon Ormaetxea ere aipatu genuen, baina bera ez zuten fusilatu.

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Garai bateko
Arrasateko
auzo berriak

50eko eta 60ko hamarkadetan, Arrasate dezente handitu zen. Argazkian Garibai etorbidea azaltzen da, eta parean, Aldaigaingo etxeak. Argazkia 1965eko San Juan jaietako egitarauan topatu dugu, eta zera jartzen du argazki oinean: *Arrasateko zeharkaldia eta auzo berriak*. Gaur egun, auzoa baino gehiago, erdialdea dela esango genuke.



≈ 1965

Seiscientos horrek aparkaleku ederra topatu du gerizpean. Gaur egun, ezinezkoa da autoa leku horretan aparkatzea.



2002

Kalea zabalagoa da orain, eta berdeguneek ere protagonismoa hartu dute, nahiz eta orduko zuhaitzak beharrean, zuhaixkak dauden.

INMO f3

inmobiliaria



SARE

INMO f3

inmobiliaria

Erdiko kalea 26.
ARRASATE
Tel.: 943 79 12 79

- Etxebizitzen salerosketarako sare garrantzitsu bat gara.
- Gipuzkoan 14 zentro elkar lanean.
- Etor zaitez gu ezagutzera. Eskerrik asko.

Ireki berria Arrasaten!

Ferreriasko jaiak

Uztailaren 26an:

09:00etan etxafuegoak

12:00etan txistularien kalejira

17:00etan Haur jolasak, zaku lasterketa, txokolatada, e.a.


19:00etan Ikurrina jaso, txistularien kalejira, herri poteoa,
7 eta 14 urte bitarteko mutikoendako lasterketa,
joko eta lehiaketak

19:00etan kaleko hildakoen aldeko meza parrokian

21:00etan herri afaria

23:00etan musika, herriko talde batek girotua


24:00etan zaku lasterketa eta helduendako jolasak



**PAPER DENDA
J. URIARTE
GRUPO TAMAYO**

Eskerrik asko eta ondo igaro Ferrerriaseko jaiak

Ferrerrias kalea, 32
Tel.: 943 77 03 80



Etxe
mobiliario y
decoracion

IRATI TABERNA

Ferrerrias kalea • Tel.: 943 79 56 11
ARRASATE

MERKEKILO

Oihalak
Gortinak

Ferrerrias, 5
Tel.: 943 79 15 00

*Body piercing
eta
tatuajeak*



AKER

Ferrerrias, 28 behea, B
Tel.: 943 79 92 84

**OBRAK ETA
BARRUKO
PROIEKTUAK**

Ferrerrias, 17
Tel. eta faxa:
943 79 03 17
ARRASATE

•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Ispiluak, Margoak

Ferrerrias, 11 • Tel.: 943 77 10 95
ARRASATE



*"Ilusioak
banatzen"*

ONCE

Ferrerrias, 12
Tel.: 943 71 24 66

Ferreriasko jaiak

N & N sol

Solarium eta estetika zentroa

Ferrerias kalea 28, behea ARRASATE
Tel.: 943 79 64 57

gorka ileapaindegia

ordutegia:

asteartetik ostiralera 09.30 - 20.00

larunbatetan 08.00 - 14.00

ferrerias, 35
arrasate

943 77 13 78



Urizar
ostatua

Ferrerias 15
943 79 2 93

Jovi

10.000
KOLORETAKO MENUA

CARMEN

Ile apaindegia
Solariuma

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63



Abuztuan
zabalik!



Gora
Ferrerias!

- Gosariak
- Bokatak
- Pintxuak
- Traguak...

Eskerrikasko guztiagatik!

...eta sekulako girua!!

